

# BALEIKE

269. ZENBAKIA. EURO BAT  
2017ko URRIA

[www.baleike.eus](http://www.baleike.eus)



## TABERNAKO IKASGAIAK

ENEKO DORRONSOROREN KRONIKA KATALUNIATIK

BALAY  
3SC871B

319€

Kondentsazioa

7 kg

B



INDESIT  
IS41V

219€

Lurrun irteera

4 kg

C



BEKO  
DV7110

239€

Lurrun irteera

7 kg

C



BALAY  
3SB285

449€

Kondentsazioa

8 kg

A+



BOSCH  
WTG87228EE

549€

Kondentsazioa

8 kg

A++



LEHORGAILUEN  
ESKAITZA

Ordaindu 10 hilabetean  
INTERESIK GABE

AEG  
T8DBG842

599€

-%10 bueltan

Kondentsazioa

8 kg

A++



PANASONIC  
NHP8ER1WES

699€

Kondentsazioa

8 kg

A+++



MIELE  
TDB220WP

799€

Kondentsazioa

7 kg

A++



TIEN 21



ENDAÑETA ZUMAI  
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
www.endañetazumaia.com





## HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

8

baleike +

## KATALUNIATIK KRONIKA

5

inkesta  
ZER IRUDITU TAO  
SISTEMA?

16

lehiaketa  
UDAKO ARGAZKI  
LEHIAKETA: EMAITZAK

19

erreportajea  
GAZTEAK BARRAREN  
BESTALDEAN

24

erreportajea  
KOMENTUKO  
ATERPETXEA

30

agenda  
URRIA-AZAROA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Zumaiko Udala**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua





**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



diseinua  
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



**AL-ANON**

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartea  
Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00

**Agurtzane Okindegia**



Erribera 2 • 943 862 152

**LIBRURU DENDA**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

• Eskaiola  
• Pladur-a

696 726188  
943 143261



**Amama taberna**

tel: 943 543 164  
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



**ATARI**  
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel. 943 862 532


Arotzategia: Santiago, 40 Tel. 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



**OKINDEGIA**  
Artxupe

Naiztoa 2. tel. 943 861 501

ZUMAIA

**OGI-EDER**



**Arruti**  
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA  
943 543 406  
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



Bosch Car Service

**Autos Zumaia**

Gasolina injekzioa Diesel injekzioa Elektrizitatea/Elektronika Piztea

Balaztak, ABS, ESP Mantentze mekanika Motorraren mekanika Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485  
autoszumaia@bosch-bcs.com

**Azkue**

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651  
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 - 20749 Arroa tel./fax: 943 148 306  
bakun@euskalnet.net



**Basodi**  
albaitaritza

Ribaitorio Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310  
www.basodi@basodi.net  
www.basodi.com

Golez: 11-13 / Arratsalde: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia  
Lantekibersko: 605 728 737 Etkez ebeko zerbitzu



**BASUSTA**  
erretegia • asador

José Blázquez

Pafelia Ebezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73  
943 86 04 38  
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



**Braky's**  
Okindegia • Katetegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

# Zer iruditu sistema?

# TAO

TESTUA ETA ARGAZKIAK: SARA IBARGUREN

INKESTA

Dagoeneko igaro da Zumaia TAO izan duen lehenengo udara. Aparkatzeko arazoak zirela eta, Zumaia Udalak 2017ko udararako TAO sistema ezartzea erabaki zuen. Ekainaren 15etik irailaren 15eraino egon da indarrean sistema herriko lau eremutan: Alde Zaharra-San Josen, Larretxon, Arrangoleta-Amaiaiko plazan eta Ardantzabiden. Moilaberriko zubitik Saregileen plazaraino eta Ardantzabiden indarrean jarraituko du sistemak urte osoan zehar. Zumaia hainbat tabernari, dendari eta auzotako herritarrekin hitz egin dugu TAO sistemari buruzko euren iritziak ezagutzeko.





## Ana Arregi

### Ana arropa dendaren jabea

• “Niri TAO jartzea ongi iruditzen zait. Nire ustez, ordea, ez dute ongi jarri; beste modu batera egin daitekeela uste dut. Negozioan ez dut ezer ere igarri, baina ez dakigu TAOrik gabe nola izango litzatekeen gauza. Ikusi dudana da jende asko presaka etortzen zela, esanez: ‘Mugitu, ordubete bakarrik daukagu eta joan egin behar dugu, TAO pasa egingo zaigu bestela!’. Jendea estresatuta ikusi dut, eta ingurukoak, Zestoakoak, Arroakoak, Oikiakoak, etab. pila bat kexatu dira TAOren gaiarekin eta pila batek esan didate jada ez direla asko etortzen. Baina nik bestela ez dut igarri jendea jaitsi denik. Denboraren kontua aldatuko nuke, egun guztirako aukera egotea jarriko nuke, ez bakarrik ordu eta erdi edo sei ordu edo dena delakoa. TAO egotea ongi iruditzen zait, baina gustatuko litzaidake egun osorako egoteko aukera izatea”.



## Iker Físico

### Gure Txokoa tabernako langilea

• “Alde batetik, bazen TAO jartzeko garaia, baina denbora luzera uste dut herriarentzat kaltegarria izango dela. Ohituta gaude azkenaldian hainbeste turista etortzera, eta orain, bat-batean, TAOrekin dezente moztuko dela uste dut. Momentuz esan daiteke herritarrei dohainik ateratzen zaigula, baina orduaren kontua... hemen aurrean, behintzat, denbora tarte gehiago jarriko nuke, ordu eta erdi baino gehiago. Guri gaizki datorkigu ordu eta erdirekin, bezeroak azkar-azkar bazkaldu eta joan egiten dira TAO jartzera joan behar dutelako. Hori gaizki datorkigu”.



## Ane Menayo

### Larretxoko herritarra

• “Neuri ongi etorri zait TAO jartzea. Larretxon bizi naizenez, hondartza ondoan, udan beti eduki dut lekuren bat etxetik gertu aparkatzeko. Ez balitz TAO egongo, turistak edo beste auzo batzuetan bizi den herriko jende asko hondartzara ko-txean joango lirateke eta nik lanetik edo beste nonbaitek iritsitakoan ez nuke lekua edukiko. Orduan, alde horretatik, pozik nago, ze, lanetik iritsi eta lekua zurrututa edukitzea hondartza alboan azken urteetan zaila izan da. Aldatuko nukeena Larretxora igotzeko jarri duten



## Itziar Osa

### GEË dendaren jabea


• “Alde batetik, ondo iruditu zait Zumaian TAO jartzea, ze, azkenean aparkaleku arazo bat zegoen eta horrekin, behintzat, herritarrok irabazi egin dugu. Hala ere, dendarako txarra izan da: jendeak hemen, Moilan, denbora gutxi dauka eta orduan beti tiketaren kontuarekin joan egiten zen. Aldatuko nukeena izango litzateke hemen ere, Paolbidean bezala, errotazio altuko TAO jartzea”.



## Ander Urbietta

### Tximista tabernaren jabea

• “Iruditzen zait TAO jarri behar zela, ez dakit sistema onena jarri duten edo ez duten, probak egin beharko dira. Baina zerbait egin beharra zegoen. Nik beste era batera jarriko nuke, seguru asko; TAOren aparkaleku dezente gehiago jarriko nituzke horrenbeste egoiliar jarri beharrean, baina hasieran probak egitea normala iruditzen zait. Negozioan onik ez dit eragin, egunean zehar lehengo urtetik hona igarri dut aldea. Niri iruditzen zait ez duela gehiegi lagundu jendeak aparkatzeko, baina garbi dago zerbait egin behar dela. Orduan, ez dakit, iruditzen zait datorren urtean hobeto egongo dela. Egoiliar gutxiago egon beharko luke nire ustez eta TAO n aparkatzeko aukera gehiago, aparkaleku huts asko ikusi dira eta. Orduan, erdibide bat bilatu behar da arazoa konpontzeko”.



kamera da; gertuko kasu bat ezagutu dut: zumaian batek bere garajea Larretxon eduki, kanpoko lagun bat etorri eta ezin aparkatu ahal izatea garaje horretan; izan ere, kamera horrek hogeita minutuko aukera ematen du gora igo eta behera jaisteko. Bestela, niri azaldu didatenez, multa zuzenean etxera iristen da. Orduan, uste dut norbaitek bere garajea baldin badauka, edozein kotxek sartzeko aukera eduki beharko lukela. Kamera horrek ez zuen uzten hori egiten, matrikula erregistratuta ez zegoenez, multa iritsiko zitzaiolako eta zerbait aldatzekotan, horixe aldatuko nuke”.

## Joxe Etxeberria

### Mari kaleko herritarra

• “Komenigarria zen Zumaian TAO jartzea: jende askok autoa ekartzen zuen goizean, hondartzara edo etortzen ziren eta egun





osoa autoa hor aparkatuta uzten zuten. Hori ezin daiteke egin, hori leku gutxitan egiten da. Zumaian uste dut komeni zela neurriren bat hartzea. Beti dago aldatzeko zerbait, baina ez da arazo handia Zumaian TAO jartzea, kanpotarrentzat badago-eta tokia aparkatzeko kirol portuko zabalgunean, adibidez, kotxea han utzi eta ederki etor daiteke bai kaskora, bai hondartzara, batera eta bestera. Ibaia pasatzeko motorra dago eta ez dago batera eragozpenik. Molestia pixka bat, baina nola ohituta gauden leku bertaraino kotxearekin joan eta egun osorako han lagatzera, gehiegitxo bezala da. Zumaian ezin daiteke, eta beste herritan ere ez dut uste”.

### Moisés Torrente

#### Bonbillo behekoa kaleko herritarra

- “Ongi eta beharrezkoa iruditzen zait herriarentzat TAO jartzea. Beharrezkoa zen zerbait jartzea kotxea errazago uzteko. Horrez gain, herritarrak garenontzat ordu eta erdi daukagu libre aparkatzeko ezer ordaindu gabe, eta oso ondo datorkigu. Aldatzeko? Ez zait ezer bururatzen zerbait”.



### Javi Manteca

#### Txurreko saltzailea

- “Ongi iruditzen zait TAO jartzea. Gainera, hobetu egin da, toki gehiago egon delako egoiliarrek aparkatzeko. Beti hobetu daiteke, baina ongi iruditzen zait. Gauza asko alda daitezke, baina aztertu egin behar da. Momentuz, ondo dagoela iruditzen zait”.



### Maddi Uranga

#### Aita Mari kaleko herritarra

- “Iruditzen zait turismoa asko igo denez, erregulatu egin behar zela aparkalekuena, azkenean zumaiaerok aparkatzeko arazoak genituen eta. Baina ez zait iruditzen diruarekin ordaintzea denik konponbidea aparkamenduen arazoari aurre egiteko. Baina, beno, hala ere, behin konponbidea jarrita, gaizki iruditzen zait TAO herriaren alde batean bakarrik jartzea, horrek azkenean herriaren beste aldeari, hau da, Poligonoari kaltea ekarri diolako, han aparkatu ezin zutenek poligonoan aparkatu dutelako. Jari zituzten pertsona horiek azkenean ez zuten funtziorik betetzen, eta, orduan, alde honetakook aparkatzeko arazoak eduki ditugu. Bestalde, arazoa zen Poligonokoak zubiaren beste aldean aparkatzeko arazoak geneuzkala, TAO zegoen tokietan bakarrik aparka genezakeen, eta, gainera, ordu mugatu batzuetan. Eta, aldiz, egoiliarren txartela zutenek gure aldean, Eroskira joateko edo dena delakoa, nahi zuten adina denbora eta nahi zuten lekuan aparkatzeko aukera zutela”. ■





Gaur 2017ko urriak 5. Herenegun erregea mintzatu zitzaigun: *Kataluniak Espainian jarraituko du. Atzo mintzatu zitzaigun president-a: bitartekariak behar ditugu herriak erabaki duena betetzen laguntzeko. Gaur dagoeneko debekatu du Tribunal Konstituzionalak Kataluniako Parlamentuak datorren astelehenerako oraindik deitu ez duen plenoa.*

TESTUA: ENKO DORRONSORO  
ARGAZKIAK: DAVID JULIÀ





# Kataluniatik kronika

ERREPORTAJEA



Nik lagun batekin bazkaldu dut, triste dagoela esan baitit; espainiar sentitzen da.

Norberak bere betaurrekoen bitartez ikusten ditu gauzak eta terapeutak dio ez dela arrazoiez hitz egin behar, sentimenduez baizik. Hala ulertuko dugula elkar. Hona nireak, esan diot lagunari:

—Bartzelonan bizi arren, orain gutxi arte ez naiz hemen errol-datzeko *gai izan*. Arazoak sortzen zizkidan horrek, baina...

—Munduarekin komunikatzeko darabilzkidan bideetan euskarak presentzia nabarmena du. Arazoak sortzen dizkit horrek, baina...

Euskara-dun sentitzen naiz, Euskararen Herriko. Eta sentimendu hori estrapolatzen dut hizkuntza eta kultura hegemoniko berberaren menpe dagoen beste herrialde honetara (sinplifikatuz, eh, eta *erregimen zabarraraz* hitz egiten hasiz gero, terapeutak esango baitit: *xxxxhbb...* *Horiek ez dira sentimenduak!*). Poztu egin nau, beraz, Kataluniak hartu duen bide berriak; nire laguna tristatu duen bide berberak.

Aurreko ostegunera egingo dut jauzi, irailaren 28ra. Astebete generaman gaueroko kazeroladekin, urnak zirela-eta egin-dako atxiloketengatik protestan. Helikopteroak hegan, Pioninen barkua portuan, milaka polizia *a por ellos!*, eta igandera begira mila zurrumurru sare sozialetan (portzietxo, oraingoan enpatxatu naute): mossoek ahal zuten neurrian erraztuko zutela erreferenduma, baina unea iristean Espainiako poliziek

eskolak prezintatuko zituztela, urnak konfiskatu eta boto paperak sekuestratuko. Ah, eta tanke pila bat zekartzan trenan ikusi zuen norbaitek Lleidako estaziotik pasatzen!

Ez dut ukatuko beldur puntua, baina bidegabekeria baten aurrean geundela uste genuen, eta ezin uka, adrenalina ere esnatzen da halako egoeretan. Herri ekimenetik plan bat proposatu zen orduan: ostiral arratsaldean ateak itxi aurretik eskolak okupatu behar ziren ekintzaren baten aitzakian, igandera arte ateak irekita mantentzeko. Legezkoa izango zen, egitarauan erreferendumak presentziarik izan ez arren. Eta gure alaben ikastetxea bozka leku denez, asanblea: zein guraso daude asteburua eskolan pasatzeko prest?

Ostiral gauerako nire bikotea. Eta etxetik irteerakoan alabak agurtu zituenean, negar egin zuen zaharrenak: *Ama, ez dut hil zaitzaten nahi*. Egia da berehala pasatu zitzaioela beldurra, lo nirekin ohe handian egin ahal izango zuela esan nioanean. Baina zer pentsatua ematen du alabari sorrarazi diozun beldurra, eta batez ere beldur horren ondorioz alabak etorkizunean izan ditzakeen sentimenduek: espainiar sentitzen den lagunarekiko, adibidez.

Ostirala gau lasaia izan zen. Polizien plana eskolak prezintatzera larunbatetik igandera joatea zela (goizeko seietan, zehazki) zabaldu zuten whatsapppek, twitterrek eta facebookek. Eta zeini zegokion familiako errepresentazio izatea gau hartan? Nerbioso esnatu nintzen larunbatean. Ez dut aitortu beharrik, baina aitor dezaket: ez naiz akzio mutila. Mezu bat nuen mobilean: *Beñat getaiarra nauk eta Bartzelonan gaude*. Alaben eskolako guraso talde batek (gure plan sekretuarekin jarraituz eta, beraz, erreferenduma aipatu gabe) udazkenari ongi-etorria emateko festa bat antolatu genuela esan nion, eta nahi bazuten etortzeko. Beñaten aitaren oroitzen nintzen, hari ere kostatuko zitzaioela bere garaietan Getarian erroldatzea; edo akaso oraindik Zumaian erroldatuta jarraituko duela, nahiz eta horrek arazoak sortu.

Egitarau luzea irakur zitekeen eskolako horman zintzilikatutako pankartan: harri-orri-ar txapelketa, paella herrikoia, kontzertuak, zinema aire librean, pijama festa... Eta igande goizerako *sorpresa!*

Haurrak jolasean lasai zebiltzan, guraso eta auzokideak ekintzak prestatzen (batzuk isilpekoak), eta gero eta bisitari gehiago, tartean euskaldun ugari, behar zenerako beren buruak eskainiz. Baita bazkaltzeko ere: hirurehun laguntzat prestatutako paella txiki geratu zen.

Atzerriko medioetan interes handia piztu du Kataluniako egoerak, eta guk ere bisitan izan genituen: ingelesak, italiarrak, Alemaniako telebistak... Beldurra eta adrenalina aipatu ditut lehen, protagonismoa eta egoaren puztalditxo bat gehituko nituzke orain. Eta harrotasun puntu bat ere bai: gure txikian eta egun batetik bestera, elkarrekin erlazio handirik ez genuen guraso eta auzokide talde bat desobedientzia ekintza handi baten engranaje izaten ari ginelako. Inongo esperientziarik gabeak gehienok, poliziaren oldarraldiak telebistaz soilik ikusiak asko.

Hurrengo egunetan ikusi ahal izan dugu (Espainiako telebistetan askorik ez), esperientziarik izan gabe ere ado-







rea eduki daitekeela: bultzaka ari zitzaion poliziari kaskoa kentzen saiatu zen amonarena, edo poliziari begietara begira jarri eta betondoa borrakada batez hautsi zioten neskarena, kasu. Amorrua eta inpotentzia eragin dizkidaten irudi asko. Asko. Eta Berlingaren pelikuletatik atereak diruditen batzuk ere bai, debekuen aurrean adoreaz gain, irudimena ere martxan jartzen den seinale. Barre egin dut poliziek konfiskatutako urnetan boto paperen ordez txistek sartu zituztenen istorioa entzutean, baita meza hartako bideoarekin ere: herritarrak kantuz, aldarean botoak kontatzen dituzten bitartean.

Orain badakit larunbat gauean poliziak ez zirela gure alaben eskola prezintatzera etorri, ezta igandean zehar urrak konfiskatzera ere. Baina beldurra sentitu nuen nik gau hartan. Egoaren, protagonismoaren, adrenalina igoeraren, harrotasunaren gainetik beldurra. Poli-

zia etorritz gero zer egin beharko genuen elkarri errepikatzen genionean. Bizikleten giltzarrapoekin eskolako ateari ixteko

modurik egokienaren bila ari ginen. Linternak hartu eta pisuz pisu inor ezkutatuta ote zegoen ikustera joan ginenean. Gau guztian hara eta hona zebilen gazte indartsu hura poliziaz "sekreta" bat izango zela susmatu genuenean.

Berrogeita hamar urte inguru izango zituzten lo zaku eta guzti gaua gurekin pasatzeko prest etorri ziren lau euskaldun haiek. Polizien oldarraldiak ez dut uste telebistaz bakarrik ikusi dituztenik, eta nire beldurrean, kontseilu eske hurbildu nintzairen: nola uste duzue dela egokiago... *Guk nola egingo genukeen ez da kontua. Zuena da bidea. Babesa adieraztera etorri gara, zuen ondoan egotera. Hori bai, poliziak*

*etortzean lehen lerroan jendea behar baduzue, han izango gara.* Agian nik idatzitakoa irakurriko du, Iraetan bizi baita (eta

Ez dut ukatuko beldur puntua, baina bidegabekeria baten aurrean geundela uste genuen, eta ezin uka, adrenalina ere esnatzen da halako egoeretan









## ILUSIOA

Urriaren 1eko erreferendumean bozkatzera joan zirenei erretiratuak atera zizkien David Juliák.





## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385  
www.xantzialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara**

**MÁSMÓV.L**



## ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

## ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren  
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

## Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

## UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 11 63 97

## Galdona



burdindegia

Mondaró marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057

## Garaa

Carlos Cirfero - Anhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 81

Txomin Agirre, s/n

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

## GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha  
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



## Zapaia

Taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

## yoana ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 beheha  
943 143 278



Ikastegi homologatua

## Golden Gate

Institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha  
tel./faxa 943 865 020  
info@goldengateinstitute.com





izan zena baino pelikuleroago kontatu dudala esango du).

Goizeko seiak jo zituen eta ez zen poliziarik agertu. Tarteka mosso patruilaren bat bai errutinazko bisitan, baina pelikula honetan haiek txintxoak dira. Urnak eskolara nola sartuko erabakitzen pasa genituen egunsentiko orduak, baina hori hemendik urte batzuetara bilobei kontatzeko utziko dut (behin egingo ekintza klandestino bat eta...). Eskola atarian jendetza zegoen (burdinazko atearen barrualdetik ez zen garbi ikusten), eta irten ginenean, txaloz hartu gintuzten, heroiak bagina bezala. Orain bai, berriz harrotasuna, ezta?

Egoa? Protagonismoa? Ez, lotsa sentitu nuen une hartan. Gu burdinazko atearak eta bizikletaren giltzarrapoek blindatuta aktibista klandestinitan jolasten aritu ginen bitartean, harresi lana orain txaloka ari zitzaigun jendetza hark egin baitzuen. Zahar, gazte, euripean bustita... Han zeuden Beñat, Amets eta lagunak ere, goizeko ez dakit zer ordutatik. Parlamentari ere baden telebistako aurkezlea ikusi nuen guri txaloka. Eta bezperako hitzak etorri zitzaizkidan gogora: zuena da bidea, zuen ondoan egotera etorri gara.

Lo gutxi eginda nengoelako izan zitekeen, baina ez. Orain ere negarra sortzen zait. Eta terapeutak hari horretatik tirako luke: ondo, zer sentitzen duzu?

—Emozioa. Korapiloa eztarrian, eta negar egiteko gogoia.

—Ba, egin negar.

—Eske handik honaino etorri ziren eta...

Urnak eskolara nola sartuko erabakitzen pasa genituen egunsentiko orduak, baina hori hemendik urte batzuetara bilobei kontatzeko utziko dut

—Xxxxhhh arrazoiak ez, sentimenduak.

—Ba... miresmena.

Euskal Herritik, Galiziatik eta abarretatik babesa adieraztera etorri zireneko. Emazteak urnak noiz ekarriko zain larri zegoen gizonarekiko. Bastoi gainean ibiltzen lanak izan arren, ahoan irribarrea eta begiak haur baten ilusioz, bere botoa ematera joan zen aitonarekiko. *Oraindik ez da bukatu eh, kanpoan geratu poliziak sar ez daitezten esan zigun bozka mahaiko presidentarekiko... Puff! Zenbat jende, zenbat banan-banako ekintzaile!*

Espainiar sentitzen den nire lagunak triste jarraitzen du. Bazkaritan aitortu dit azken egun hauetako sentimendu eta notizia uholdearekin gainezka eginda, artikulua bat idaztea erabaki duela, eta on egin omen dio: *ni ez nintzen kontziente kataluniar soilik sentitzen den jendeak orain arte sufritu ahal izan duenaz.*

Niri on egin dit elkarrizketak (bueno, eta bazkariak). Ez dakit kataluniarrena den bide hau nirea ere ba ote den, edo zuen bidea ote den nirea. Ez dakit zer datorkigun bihar, ezta zer sentituko dudan etzi ere. Luzerako joko duela dirudi: aldebakarreko independentzia aldarrikapena, salbuespen egoera, bitartekaritza... Auskalo! Ilusioz bizi dut momentua, ordea. Bide honetan sinesten baitut. Baina lagunaren tristoraz kontziente ez banaiz, sortuko dugun herriak ondo ezagutzen dugun beste herri baten antz handia izango du. Nik, behintzat, hala sentitzen dut. ■



# Udakoko argazki lehiaketa 2017



*Ehundik gora argazki jaso ditugu lehiaketan. Hemen dituzue horietako batzuk eta ondoko orrialdean sarituak izan diren biak. Eskerrik asko parte hartzeagatik.*







EPAIMAHAIAREN SARIA *Peio Romatet*

PUBLIKOAREN  
SARIA

*Ander Aizpurua*




BABESLEA:

bqqd

bidaiak  
viajes ~ travel



**Gure-Txokoa**  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaiak  
Tel.: 943 86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

[www.academiaharvest.com](http://www.academiaharvest.com)

San Jose, 11 bis. tel. 943 143 384

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**Iriondo optika**



Kantauri plaza, 8. Zumaiak. tel.: 943 86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

**IRUDI OTS**



Ikuskizun orofarako solinu eta argiztapen alokairua  
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943 63 16 32 [irudiots@irudiots.com](mailto:irudiots@irudiots.com)

**IRUITZ**



Ileapaindegia Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**TXALAPARTA**  
OPARIK



Angelos Soratu, 2  
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
fax: 943 430 657

**Talaira**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**ORRAZTEGI**  
ZUMAIK



943 862 083

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Baseldi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

**JUSTA**  
taberna

Erribera kalea, 20 [www.justataberna.com](http://www.justataberna.com)  
tel. 943 861 405 [justa@justataberna.com](mailto:justa@justataberna.com)

**KABI** Patxita Etxezarrate, 18  
943 117 427

TABERNA



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

**kalari**



Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517

**DOIA**



Julio Beobide, 2  
943 574 986

**kuttun**  
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

# GAZTEAK BARRAREN BESTALDEAN

ERREPORTAJEA

TESTUA: IOSU ALBERDI  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Ugari dira ikasturtea amaitu eta lan bila hasten diren gazteak. Askok ostalaritzan aurkitzen dute diru pixka bat irabazteko aukera. Hilabete gutxi batzuk iraungo dituen lana izan ohi da, udazkenarekin batera ikasketetara itzuli bitartekoa.



Turismoak gora egin du herrian, eta horrekin batera tabernetako mugimenduak. Hori dela eta, Zumaian gazte asko aritzen dira lanean tabernen barra atzean. Ikasturteen arteko hilabete libreak aprobetxatu nahi izaten dituzte askok, diru pixka bat irabazteko. Askorentzat aurtengoa izan da lehen esperientzia.

Tabernetan lan egitea erabakitzen duten gazteek aukera “errealistena” ikusten dute sektore horretan. “Nire kasuan, ez nuen aukera gehiegi, lan munduan esperientziarik gabe, eta bi hilabete izanik, aukera errealistenaren alde egin nuen”, adierazi du Inhar Yeregik. Yeregik 21 urte ditu, eta Kraken tabernan (Beheko plazan) aritu da udan, irailean Telekomunikazioen Ingeniaritza gradura itzuli bitartean. Ez da lan egiten duen lehen aldia; bai, ordea, tabernako barraren beste aldean jartzen dena.

Sara Unanue Batxilergoa egiten ari da, eta honek ere lanean hasteko aukera “bakarrenetakoaren” alde egin du. Goiko tabernan hasi zuen bere lan esperientzia Unanuek, ondoren Itzurun hondartzako kantinan jarraitzeko. Gehienek uda amaitzearekin batera bukatzen dituzte lanak, baina berak jarraitzea erabaki du, Justa tabernan. “Ez dugu edonon lan egiteko curriculumik; beraz, ostalaritzara jotzen dugu”, azaldu du.

Udan gazteen gastuek gora egin ohi dute, eta horiei aurre egiteko lan egin beharra dago. Unanuek gidabaimena ateratzeko nahi du dirua: “Ez zitzaidan justua iruditzen gurasoek dirutza hori gastatzea nire kapritxo batean”. Beraz, dirua lortu eta aurreztearen alde egin du. Maite Lazkano bat dator ideia horrekin: “Nire gastuak handiagoak dira orain, eta gurasoei eskatu beharrean, dirua nonbaitetik atera beharra dago”. Justa tabernan aritu da Lazkano ere, lan hori haurren udalekue-tako monitore izatearekin uztartuz. Iraila iristearrekin batera,

ordea, Gasteizko pisura itzuli da, Geografia graduko azken urteari ekiteko.

Gazteentzat euren formakuntza profesionalarekin lotutako lanetan aritzea “zaila edo ia ezinezkoa” iruditzen zaio Mikel Eizagirreri. Beraz, taberna batean lan egitea erabaki du hark ere, Getarian. Gazteen arrazoiak ugariak direla uste du: “Ba-

dira euren gastuei aurre egiteko lan egiten dutenak, baita etxeko egoera ekonomikoa txarra delako egin behar dutenak ere”. Egungo egoera ez da “xamurra” Eizagirrerentzat: “Batzentzat nahitaezkoa bihurtzen da lan egitea ikasi ahal izateko”.

Eizagirrek, baina, positibotzat hartu du lan munduarekin izaniko lehen kontaktu hori, bere ikasketekin erlaziorik izan ez arren. Ikus-entzunezko Komunikazioko ikaslea da egun. “Ikasteko balio izan dit”, dio. Ikasteko balio

dietela esan dute gainerakoek ere. Yeregik “lan munduan esperientzia” lortu izana ere azpimarratu du.

Ane Egañak heldutasuna aipatu du: “Uste dut asko heltzen zarela diruak zenbat balio duen konturatzen zarenean”. Batxilergoa ikasten ari da eta aurten izan du lanean hasteko lehen aukera, eta Beheko Plaza tabernan aritu da. Lanean hasteko leku aproposa iruditzen zaio ostalaritza, baina horren gogortasuna kontuan izanda: “Ordu asko dira egin beharrekoak, eta ez da lan erraza”.

### “Lan gogorra”

Guztiek positibotzat jo dute euren udako lana, eta gustura egin dutela azaldu dute, baina barraren bestaldean jartzeak duen gogortasuna ere azpimarratu dute. “Lana aurkitzea erraza da, baina ondoren sakrifikatua”, azaldu du Unanuek. Halere, norberaren antolaketa pertsonalean ikusten du gakoa. Lan mota horretan “presioa” sumatzen dela adierazi

“Lanean hasi aurretik imajina dezakezu lan gogorra dela, baina hasi arte ez dakizu zenbateraino”



## ELKARRIZKETATUAK

**Sara Unanue**, 17 urte. Batxilergo biologiko zientifikoa Zumaiaiko Institutuan. Goikon eta Itzuruneko kantinan udan, eta orain Justan.

**Ane Egaña**, 16 urte. Batxilergo humanistikoa Zumaiaiko Institutuan. Beheko Plaza tabernan.

**Mikel Eizagirre**, 19 urte. Ikus entzunezko komunikazioa EHU, Leioan. Getarian aritu da.

**Inhar Yeregi**, 21 urte. Telekomunikazio Teknologiaren ingeniari-tza gradua EHU, Bilbon. Kraken tabernan.

**Maite Lazkano**, 21 urte. Geografia gradua EHU, Gasteizen. Justa tabernan.



*Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak  
Lore-zentruak, Koroak  
Landare naturalak eta artifizialak  
Zermika-lanak eta zumezko saskiak*

***Etxez etxeko zerbitzua!***  
Santiago auzoa, 18  
Tel. 943 862 611

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: [talasoterapiazelai.com](http://talasoterapiazelai.com)

Tel. 943 865100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia





# euskaraz naiz

**Euskaratu  
zure abizena!**

**Argibide gehiago: [zumaia.eus](http://zumaia.eus)**

*euskaraz  
txanpan*



Zumalako Udala



**MIREN AGIRRE**

*ileapaindegia*

**Ateak zabalik  
daude  
edonorentzat**

**Ordutegi berria:**

astelehena eta asteazkena

9:00-13:00 / 15:00-17:00

asteartea eta osteguna

9:00-13:00 / 16:30-18:30

ostirala

9:00-13:00 / 14:30-20:00

larunbata

8:00-14:00

Sagarbide 4  
Otezuri egoitza  
[agieiza@gmail.com](mailto:agieiza@gmail.com)

**Ordua aurrez hartu behar da**

**☎ 645 72 39 76**



Ezkerretik eskuinera, Inhar Yeregi, Ane Egaña eta Mikel Eizagirre. Sara Unanuek eta Maite Lazkanok, tamalez, ezin izan zuten argazki saiora agertu.

du Egañak, baina gazteak errazago ohitzen direla horrela lan egitera.

Eizagirre bat dator gogortasunaren ideia horrekin: “Lanean hasi aurretik imajina dezakezu lan gogorra dela, baina hasi arte ez dakizu zenbateraino”. Lanak eskatzen dituen ezaugarrietara ohitu beharra ezinbestekoa da Eizagrriren ustez, besteak beste, bezeroekiko jarrera irekia izatea: “Jendea bere denbora librean dago, baina zu lanean zabiltzala gogoratu behar duzu”.

Yeregi ez du ezkututzen “momentu zailak” izan dituela, “baina hori normala da”. Horiei aurre egiteko laguntza onena gainerako langileengan aurkitu du: “Gainera, lagun on bat izan dut nirekin lanean, horrek asko lagundu dit, zentzu guztietan”. Eizagirrek ere adierazi du lankideen tratua dena erraztu diola, “etxean” ikusi da, gustura. Hitz berak aipatzen dituzte Egañak eta Lazkanok ere, “gustura” eginiko lana izan dela. Lazkanok uste du, gainera, zortea izan duela lanarekin: “Ikusi ditut ordu gehiago sartu eta gutxiago irabazi dutenak”.

Langile gazteen egoerari dagokionez, denetik dago, Yeregi- ren ustez: “Denetik entzun dut, eta askori ez zaie kexatzeko arrazoirik falta”. Eizagirrek arrazoia ematen dio, eta hirugarren sektorean aritzen diren gazteen arteko “kontzientzia kolektibo baten” beharra azpimarratu du: “Ondoko tabernan dabilena beste mundu batean dagoela uste dugu. Egoerak eta lan baldintzek hobera joateko hitz egin behar dugu, gure beharrak eta motibazioak elkartzeko”. Badaki, ordea, ez dela

erraza, hilabete gutxiko lana izan ohi baita, bakoitzaren ikasketetara itzuli aurretik.

### Eta gero zer?

Ikasketak burutu bitarteko lan bezala ikusten dute gazteek ostalaritza. “Tabernek jendea behar dute, eta ikasle bizitzarekin bateragarria da”, dio Yeregik. Hortik aurrera, ordea, inork ez du bere burua mundu horri lotuta ikusten. Egañaren ustez denborarekin “erre” egiten zaituen lan bat da: “Jendearekin tratatzerako orduan aldatu egiten zaitu horrek”. Badaki, baina, egun gazteek duten egoera zaila dela.

Eizagirrek egingo luke berriz ere lan barraren atzean, baina etorkizun ertain edo luzean ez du bere burua hor ikusten: “Uste dut ia inork ez duela egiten, baina askotan derrigorrezko bihurtzen da”. Ikasketekin lotura duen nonbait espero dute euren etorkizuna. Yeregi ere hala nahiko luke, “nahiz eta horrek pribilegio bat eman gaur egun”.

Lazkanok berdin pentsatzen du, baina badaki herrian gora doan lan mota bat dela ostalaritzakoa: “Duela urte batzuetatik kanpotik gero eta jende gehiago etortzen zaigu, eta hori eramaten jakin behar da”. Ikasturtea amaitzarekin batera bukatuko du gradua ere. Irakasle izatea du helburu, baina zaila ikusten du datorren urtean lana aurkitzea: “Beraz, ikasten jarraitu behar”. Galdera bera sortzen zaie gazte gehieni ikasketak amaitzean, “eta orain zer?”. ■



Fernando **IMAZ****KOMENTUKO ATERPETXEKO ARDURADUNA**

“Ospitalezain  
batentzat  
zailena da  
**ezetz  
esatea**”

Donejakue bideko erromesentzat bidelagunak izan ohi dira aterpetxeetan boluntario egoten diren pertsonak. Iaz zabaldu zuten Komentua kostako bideko aterpetxe modura, eta beste bat gehitu zioten ibilbideari. Gipuzkoako Donejakue Bidelagunen Elkarteak bere gain dauzka aterpetxearen ardura eta gestioa. Fernando Imazekin hitz egin dugu, elkartearen presidentearekin.

Aterpetxea ixteko 15 egunen faltan egin dugu hitzordua Imazekin. Eraikinaren sarreraren ikusi dugu gaur ospitaleazain lanetan ari diren Luisa eta Filomeno bikotearekin. Lituaniatik datozen bi pertsonari datuak hartzen ari zaizkie. Guri ere ongiatorri bezetia egin digute. “Erakutsiko dizuet aterpetxea?”, galdetu digu Imazek. Horrela, elkarrizketa hasi baino lehen instalazioak ikusi ditugu.

Guztira 16 gela ditu aterpetxeak, bi komun eta egongela bat. “Egongela honetan *Handia* filmaren eszena batzuk grabatu zituzten”, kontatu du Imazek. Sukalderik ez dago, baina egongelan, kanpotik ekarritakoa jateko aukera daukate. Arropa garbitzeko ez dute garbigailurik, baina bai ontzi handi bat eta zentrifugagailu bat. Lorategi ederra dago kanpoan eta askok hor pasatzen dute arratsaldea deskantsatuz.

39 pertsonarentzako lekua dago Zumaiako aterpetxean, baina eraikinaren egoera dela medio, 25 hartzen dituzte gehienez ere.

Iaz jarri ziren elkarte eta Zumaiako Udala kontaktuan. “Irabazi asmorik gabeko elkarte bat gara eta donazioen bidez funtzionatzen dugu. Irabazten dena Udalak esaten digun elkar-teetara banatzen dugu”, esan du. Iaz ekainean jarri zuten martxan aterpetxea, baina aurten apirilaren 1etik dago zabalik. Urriaren 15ean itxiko dituzte atea. “Udalari giltzak eman aurretik, konponketaren bat edo beste egingo dugu. Iaz zoru zati bat zaharberritu genuen, eta aurten ere beste zoru zati bat edo konponduko dugu”, jarraitu du.

### Hamaika aterpetxe Gipuzkoan

Zumaiako aterpetxea ez ezik, Pasai Donibane-koa, Donostiakoa, Zarauzkoa, Andoainakoa eta Beasainakoa daramatza elkar-teak. Donostiakoa eta Zarauzkoa, adibidez, uztailean eta abuztuan zabaltzen dituzte bakarrik, eta egokitzapen lanak egin behar izaten dituzte, hau da, ekainean bukaeran guztia muntatu eta irailaren hasieran dena kendu. Zumaiatik Donejakue bidearen kostako ibilbidea pasatzen da. Gidaliburu eta mapa guztietan hirugarren etaparen barnean kokatzen dute, hau da, Zarautz-Deba zatiaren barnean. Ibilbidea Irunen hasten da, eta Imazek kontatu duenez, erromesek bi erataro jokatzeko dute: alde batetik, Irun-Donostia egiten dutenak daude; horiek Donostia-Zarauz osatzen dute bigarren etapari, eta hirugarrenean, Zarautz-Deba egiten dute. “Beste batzuei, ordea, lehen etapa luze egiten zaie, eta, orduan,

39 pertsonarentzako lekua dago Zumaiako aterpetxean, baina eraikinaren egoera dela medio, 25 hartzen dituzte gehienez ere

Donostiara iritsi beharrean, Donibanen gelditzen dira. Hurrengo egunean, berriaz, Oriaraino iristen dira, eta hirugarren egunean Zumaiara gelditzen dira”, kontatu du.

Zumaiako ospitaleazainek Kalbarioraino [Mutriku gainera] joateko gomendatzen diete hurrengo egunean. “Zergatik? Debaraino nahiko motz geratzen da bidea. Eta hurrengo egunean etaparik gogorrena egitea tokatuko zaie, hau da, Debatik-Markinara. Orduan, bezperan 7 kilometro kentzen badituzte, hori aldeko”, jarraitu du.

Aterpetxeetan boluntario dauden pertsonak oso ongi ezagutzen dute bidea, normalean egin da izaten baitute. 70 pertsona inguruk osatzen dute elkarteak, adin ezberdinetako pertsonak, “94 eta 83 urteko pertsonak ere baditugu”, aipatu du. 1987an sortu zen elkarteak eta helburuak erromesari atenditzea, Donejakue bidez dibulgazio lana egitea eta ibilbidea markatzea.

### Modan dagoen turismo plana

Imazek 1984an egin nuen lehendabiziko aldiz Santiagoraino ibilbidea, eta frantsesa zela pentsatzen zuten. Urte hartan 200 bat erromes iritsiko ziren Santiagora, eta horietatik 180 frantsesak izango ziren. “Bidea markatu gabe zegoen, eta bidean ez nuen beste inor aurkitu, ez nuen beste inorekin kointziditu. Orreagan, argiaren kableak jarraitzeko esaten zidaten!”, gogoratu du. Orduan, erromes askorentzat, fedea zen bidea egiteko arrazoia. “Orain turistikoa da, eta modan dago; horren ondorioz, askorentzat egin behar den zerbaite da”, gaineratu du.





LABARRA TABERNA  
ZUMAIA  
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943 860 484



CROISSANTERIA

pizzak  
hanburesak  
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO S.L.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

BALEIKE.eus

Deskargatu doan app-a



"Muagi"

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

Nikol  
taberna

Amniako plaza 243561816



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumala)  
609 834 438 (Itziar-Deba)  
www.carroceriasnoia.com

**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEGINTZA  
**OLIDEN**

construcciones y reformas, S.L.

647 040 156  
686 911 257

oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura

678 875 652

943 143 093

lar@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA

www.olidenreformas.com

Fotakak

Telatuak

Etxebizitzak

(Sukalkiak, banuziak)

Industrian mantentzeak

Mota gutxiakoa kooperatza lanak

Etxebizitzaren inspezio teknikoa (ITE)

Zertifikatu energetikoa

Fotobaten diseinua eta aholkularitza

Etxebizitzaren berrantolaketa

Mota gutxiakoa proiektuak



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net

**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 08 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

**Ostolaza**  
altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25

Julio Beobide Ibiltoxia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

**Primavera**  
pizzeria

943 247 011



www.laprimaverapizzeria.com

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitortekook  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondak (Kodilloa)  
Saltxitzak, ollaskook...  
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3

tel. 943 865 289



**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



Egiaztagiri bidez sartu behar da aterpetxe batera lotara, horrela jakiten baitute zein den erromesa eta zein ez. Non lortzen da hori? “Berdin du zein ibilbide egin nahi duzun, baina gure elkartera etorri eta bertan ematen dugu informazioa, egiaztagiria eta behar diren azalpenak. Baina, beno, txarreanean, edozein aterpetxetan ere ematen dute”, esan du. Baina egiaztagiria izateak ez du nahitaez esan nahi erromesa zarenik; izan ere, jende askok oporraldi merkeak bilatzen ditu.

#### Hondartzaz hondartza

Erromes guztiak egiaztagiria izan behar dute aterpetxean sartzen uzteko, eta ondoren, zigilua ipintzeko. Behin Santiagora iristean, *La Compostela* deitzen den zertifikatu bat ematen dute. Baina egiaztagiria duten guztiak erromesak dira? Zenbatek egiten dute Donejakue bide osoa? “Arriskua daukagu turista bat etorri eta guk egiaztagiria emateko. Pasatzen zaigu, eta badakigu, gainera. Aterpetxe honetatik pasa diren zenbat iritsiko ote dira Bilbora? Ez dut Santiagora esaten. Hobeto ez pentsatu!”, aitortu du. Oporraldi merkeen bila etortzen da jende asko, eta horietatik mordo bat atzerritarrak dira. “Ater-

“1987an sortu zen elkartea eta helburu dute erromesari atenditzea, Donejakue bidez dibulgazio lana egitea eta ibilbidea markatzea””

petxeko ardura osoa boluntarioen esku geratzen da, baita erromesen sarbidea ere. Hala, momentu horretan ospitalezain dagoenak erabakitzen du pertsona sartzen uztea edo ez. “Guretzat zailena da ezetz esatea, horretan zalantzarik ez izan”, aitortu du. Izan ere, ez dute lan egiten kontzientzia txarrarekin geratzeko edo gaizki pasatzeko. “Azken finean, erromes bat aterpetxera etortzen denean, gu gara guztia harentzat eta irribarre handi batekin harrera egitea da gure betebeharra”, adierazi du.

petxe sarrerara motxila batekin etortzen dira, baina gelan sartzen direnean, maletak ikusten dizkiezu... zer egin behar duzu, orduan? Kalera botaz gero, kexak jartzen dizkizute, denuntziak ere baditugu...”, jarraitu du. Imazen esanetan, hondartzaz hondartza merke bidaiatzeko aprobeztatzen dute batzuek. “Izugarritzko kostalde polita daukagu, eta jendeak hori nahi du bisitatu”, esan du. Azken urteetan, adibidez, frantses ibilbidea gainbeheran etorri da, eta, aldiz, kostaldekoak indarra hartu du. “Turismoak lagundu du horretan, eta, azken urteotan, Zumaiak hartu duen izena dela eta, jende kopurua handitu egin da”, aitortu du.



# Urriari

Zumaia Txartela erabilita  
100 €-ko sariak lor  
ditzakezu!



Zumaiko Udala

## Bai bidea batzokia jatetxea

Oporretan egongo gara urriaren 23tik 30era bitartean  
Urriaren 31n itzuliko gara

Erreserbak egiteko deitu **697 812 492** zenbakira



bai bidea

Eusebio Gurrutxaga plazan 943 86 02 75



### Aterpetxeen beharra

2004. urtean hasi ziren kostako bidean aterpetxeak jartzen, eta ordutik ibilbideak gorakada handia izan du. 1988. urtean, Imaz bera izan zen ahaztuta zegoen ibilbide hori egiten lehenengotako bat “Bideari buruzko hainbat erreferentzia bazeuden, baita bibliografia eta mapa batzuk ere. Horiek aztertu eta ikasi, eta hala abiatu ginen Santiagora. Gogoratzen naiz ez zigutela *Compostela* zertifikatua eman nahi izan, oraindik ez zegoelako aitortuta ibilbide bezala”, esan du. 1991-1992. urteetan Eusko Jaur-laritzak potentziatu nahi izan zuen bide hori, eta horretarako osatu zuen gidaliburu bat. “Ez zuen ezertarako balio izan. Aterpetxerik gabe jendeak ez du bidea egiten, ez baitaude ordaintzeko prest, eta gutxiago oso garesti”, nabarmendu du.

Aterpetxeak gestionatzeko, elkarteak boluntarioen txandakatze sistema erabiltzen du. Gipuzkoako aterpetxeen kasuan, 120 txanda bete behar dira urtero, eta txanda bakoitza 10 eguneko da. Jende eza dute arazo nagusia, eta horregatik, 3 edota 4 txanda egitea

“Jende askok Donejakue bidea egin beharrean oporraldi merkeak bilatzen ditu”

2004. urtean hasi ziren kostako bidean aterpetxeak jartzen, eta ordutik ibilbideak gorakada handia izan du

ere tokatzen zaio boluntario bakoitzari. “Txandakatze sistemarekin San Juan de Ortegan dagoen monasterio batean hasi ginen, Burgosen. 1991. urtea zen. Hurrengo urtean, Orreagan egon ginen, eta sistema berarekin jarraitu genuen”, gogoratu du.

Urriaren 15ean itxiko dituzte atea Gipuzkoako aterpetxe guztiek, eta Zumaiaren kasuan, 4.000 pertsona baino gehiago igaro dira. Iazko datuak ere oso ere, denbora laburragoan egon zen zabaldua eta 3.000 pertsonara iritsi zen. Gutxienez 50 herrialdetako jendea pasa zen hemendik, iaz batez ere alemaniarrek. “Zumaia toki berezia da, eta aterpetxea bera ere bai. Edozein boluntarioentzat sari bat da hemen lan egitea”, gaineratu du.

Imazentzat Donejakue bidea bera da berezia, baita boluntario moduan egiten duen lan guztia ere. Poza ematen dio eginkizun honek, eta aitortu duenez, baita nahigabeak ere. “Dena ematen dit, poza, lagunak, baita atsekabeak ere, baina guk sortu genuen elkarte eta kostako bidearen aldeko apustua, eta horrek asko lotzen zaitu”. ■



# URRIA-AZAROA

## DEIALDIK

Geoparkeko bisita gidatuak egunero  
www.geoparkea.com

**Kursaala Eskura:** Zumaiaetik autobusa doan, 18:40. Hurrengo emanaldia: azaroak 9 Bamberger Symphoniker (sarrera norberak erosita, autobusaren erreserba kulturetxea@zumaia.eus 943851056)

**Azaroak 19-25** Xixili eguna

ospatzeko musika egitaraua

**Azaroak 28-abenduak 3**

Euskararen Astea

## ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

**Irailak 28-Urriak 15**

Titto Aguerre

**Urriak 21-azaroak 5**

Iago Rey

**Azaroak 8-26**

Indarkeria matxista: Zutik emakumeok!!

**Azaroak 30-abenduak 17**

Distira argazki elkarteak – erakusketa kolektiboa

## URRIA

**18, asteazkena**

19:30 Oxford aretoan Olarro

Eguneko argazki rallyaren sari banaketa

**19, osteguna**

20:00 Tximista garagardotegian magia

ikuskitzuna: Hodei magoa

**20, ostirala**

20:00 Otezuriko kafetegian

kontzertu akustikoa: Maria Martinez

22:00 Oxford aretoan antzerkia:

*Hozkailua*, Huts teatroa

**21, larunbata**

12:00 Fromista herriko ordezkarien

etorrera: udaletxean harrera, Beheko Plaza abesbatzaren saioa, kalean dantzak...

**22, igandea**

19:00 Parrokian Andra Mari

abiesbatzaren kontzertua: *Requiem*, Fauré

**27, ostirala**

19:30 Forondan Gune elkartearen

solasaldia: *Nondik dator eta nora doa kosmosa, materia, dena?* (Aitor Bergara)

**27-28 ostiral eta larunbata**

Jardunaldia: *Askotariko diskriminazioen*

*aurkako ekintza feminista*,

Haurraldek eta Malen Etxeak

antolatuta

## AZAROA

**2, osteguna**

22:00 Aita Marin zine forum: *Estiu*

1993 (Verano 1993), JBA. Zuz.:

Carla Simón

**4, larunbata**

11:00 Algorri interpretazio zentroan

mineralen tailerra (8-12 urte)

Izen-ematea 943143100 / info@

algorri.eus.

**7, asteartea**

15:30 Aita Marin antzerkia

ikastetxeetako ikasleentzat: *Muxua*,

Tanttaka

18:00 Alondegian irakurle taldea:

*Nola heldu naiz ni honaino?* Kattalin

Miner idazlearekin



**12, igandea**

11:00 Hitzaldi ibiltzaria Urola

Kosta eskualdeko itsas ondarea

ezagutzeko

12:00 Aita Marin antzerkia

haurrentzat: *Cletaren ametsa*, Gus

marionetas

**14, asteartea**

18:30 Oxford aretoan *Volar*

dokumentala + solasaldia

protagonistekin

**16, osteguna**

22:00 Aita Marin zine forum:

*Dunkerque*. Zuz.: Christopher Nolan

**19, igandea**

Parrokian, Xixili eguna ospatzeko,

Beheko Plaza abesbatzarekin Meza

nagusia

**23, osteguna**

18:30 Banda eta

Musika eskolaren

kalejira eta entzunaldia

**24, ostirala**

22:00 Aita Marin

antzerkia: *Frida*, Iris

teatro [gaztelaniaz]

**25, larunbata**

11:30 Parrokian

organoaren bisita gidatua eta

entzunaldia Iñigo de Pequeren

eskutik

20:00 Oxford, Musika Bandaren

kontzertua + zine proiektzioa

**28, asteartea**

19:00 Aita Marin luzemetraia: *Bi*

*txirula*, Iñigo García zumaiaarrak

zuzendua

**30, osteguna**

19:00 Oxford aretoan, Julene

Azpeitia ipuin lehiaketako sarien

banaketa; ondoren, *Nigan, ispilu*

*batean bezala* emanaldia, Petti eta

Irati Jimenezen eskutik

22:00 Aita Marin zine forum: *Lady*

*Macbeth*. Zuz.: William Oldroyd

**Zalla**  
• plater konbinatuak  
• ogitarkekoak  
• oilasko erreak  
Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumalaautoeskola@hotmail.com  
BASOPI 12  
20750 ZUMAIA  
Tel. 943861018 / Fax. 943016126

**Zumaia Hotela**  
*Jateketa*  
*Kafetegia*  
Abai suzalegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR, S.L.  
José Rey Alfaro Gerente  
Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumaiaimotor@telefonica.net

**EDU**  
ZUMAIARR  
OPTIKA  
RPS 18/16

Txomin Agirre kalea 6,  
750 Zumaia, Gipuzkoa  
T. 943.143.057  
www.eduoptika.com



Denda berrituta  
ikusteko irrikatan?

Gu egunak kontatzen  
hasiak gara...

Santiago anzoa, 2  
Tel. 943 143 443

**BIYONA**

La **Prima Vera**  
pizzeria 



2007/09/12 - 2017/09/12



*urte zuekin!*  
*Eskerrik asko denoi!!*





# GOIMEK S.COOP.

HONAKO HAU BEHAR DA  
FRESATZAILE MANDRINATZAILEA

## FUNTZIOAK:

- Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorrek makinak edo mandrinatzeakoak), bai arbastatze eragiketan eta baita akaberakoetan esperientzia izatea.

## ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC menperatzea, eta Heindenhain ezagutzea baloratuko da.
- Ekimena.

- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna.
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.


## ESKAITZEN DA:

- Berehalako lanean hasia.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

## EPEA:

2017ko urriaren 31 baino lehen.

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete curriculumua.  
[ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com).



# GOIMEK S.COOP.

HONAKO HAU BEHAR DA  
TORNU BERTIKALEKO LANGILEA

## FUNTZIOAK:

- Tornu bertikala erabiltzen jakitea, arbastatze eta akaberako eragiketak egiteko.

## ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC programazioa ezagutzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.

## ESKAITZEN DA:

- Berehalako lanean hasia.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

## EPEA:

2017ko urriaren 31 baino lehen.

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete curriculumua.  
[ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com).

